

Legediaren hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren lehentasun nagusia unibertsaltasun, solidaritate, ekitate, kalitate eta herritarren parte-hartzeko osasun publikoko eta kalitatezko sistema finkatu eta babestea izan da eta izaten jarraitzen du oraindik ere. Pertsonen parte-hartzearen printzipioa goratzen, egituratzen eta sustatzen laguntzeak Euskadiko osasun-sistema publikoko printzipioen garapena sustatuko duen uste osoarekin.

Horretarako, legediaren hasieran, osasun arloan, pertsonen parte-hartze dinamika sortzeko konpromisoa hartu genuen, betiere, modu egituratuan eta gardenean talde interesdun guztien iritzia bil zitezen (pazienteak, familiak eta zaintzaileak, herritarrak oro har, pazienteen elkarteak, osasun-adituak, zerbitzuen antolaketa-arduradunak, politika- edo legedi-kudeaketako arduradunak, beste Gobernu Sailak eta abar). Seguru ginen inplikaturako eragile guztien elkarlanarekin eta ekarpenekin parte-hartze maila handiagoko osasun-sistema lortzeko plan bat ezarriko zela, hau da, osasun-sistema hobea. Urtebete geroago, guztiok egiaztatu dugu lehen "Euskal Osasun Sistema Publikoan Herritarren Parte-hartzea Bultzatzeko Plana", ikuspegi eta perspektiba desberdinen batuketari esker egina, askoz ere aberatsagoa dela talde interesdun horien laguntzarik gabe egindakoa baino.

Parte-hartzean analisi eta diagnostiko fasea amaitu ostean eta partekatutako lan honen ondorioz, Gida hau aurkeztu dugu osasun arloan herritarren parte-hartzea bultzatzeko Osakidetza erakundeentzat. Bidaia honen hasieratik entzundakoari erantzuten dio: izan ere, parte hartuz ikasten da parte hartzen.

Gida honek, azken finean, Osakidetza Zerbitzu Erakundeei eta bertako profesionalei Herritarren Parte-hartzeko Planak martxan jartzeko eta ezartzeko tresnak eta metodoak eman nahi dizkie. Horien bidez, Osakidetza Erakunde bakoitza eraldatuko da euskal herritarren osasun-hobekuntza sustatuz.

Hemendik aurrera, Plan horiek zabaltzen, ezartzen, garatzen eta ebaluatzen lan egiteko ordua da. Agertoki partekatua izango da; izan ere, eguneroko egoeran, osasunean, pertsonak adina protagonista dago.

Pertsonekin konprometitu gaude. Eta osasun-baliabideak bideratzeko pertsonen parte-hartzearekin guztiz konprometitu gaude, baita osasun-baliabide horiek pertsonen beharrei erantzutearekin ere.

Eskerrik asko guztioi



Jon Darpón. Osasun Sailburua



OSASUN ARLOAN PARTE HARTZEA ZEHAZTUZ

Osasun arloan parte-hartzea lantzeak esan nahi du herritarren, profesionalen, osasun-erakundeen eta osasun-sistemaren artean **harreman-eredu berri bat** eta **harremanak ulertzeko modu berri bat** ezartzea. Eta ez osasuna ezagutzeko eta hobeto kontrolatzeko soilik, baita **osasun-politiken diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan eragiteko ere**.

Zer esan nahi dugu HERRITARRAK esaten dugunean?

“Herritarrak” terminoa aukeratzen dugu pazienteez, familiez, pertsona zaintzaileez, herritarrez (oro har), elkarteaz, zerbitzuen erakundeetako profesionalaz, beste erakunde batzuetako pertsonaz edota instituzioez, enpresez eta abarrez hitz egiteko.


Gure rolak aldatzen diren premisatik abiatzen gara eta gai zehatz bakoitzak eragiten dien interes taldeen parte hartzea eskatuko du.

Esate baterako, gaixotasunaren fasearen arabera, batzuetan, pazienteek parte hartu beharko dute eta beste batzuetan zaintzen dituzten pertsonak. Zenbaitetan, beharrezkoa izango da klinikoki inoiz arretarik eman ez zaionaren ikuspegia, edo enpresa hornitzaile batena.

Zer esan nahi dugu PROFESIONAL esaten dugunean?

“Profesionalak” hitza erabilia, Osakidetzan “erakunde baten” kategoria eta diziiplina profesional guztiak aipatu nahi ditugu (osasun arlokoak, osasun arlokoak ez direnak, kudeaketakoak eta abar), erakunde hori Erakunde Sanitatio Integratu (ESI) gisa egituratuta egon edo ez egon, Osasun Mentaleko Sareen kasua, esate baterako.

Guztiak termino horietan daude sartuta. Osasunean herritarren parte-hartzea bultzatzeko gidari izan nahi dugu guztiok.




Parte-hartzea sistemarekin berarekin bat datorren printzipioa da, horrelaxe dira unibertsaltasuna, solidaritatea, ekitatea eta zerbitzuen kalitatea ere. Informazioarekin hasten da, baina gizarte aktiboa gara daiteke, bere osasun indibidualarekin konprometituta dagoena, eta kolektiboki komunitate osoaren osasun-zerbitzuen definizioan, antolaketan eta hobekuntzan lagunduko duena.

Horrela, osasunean parte hartzea honela uler daiteke...

...informaziotik, kontsultatik eta parte-hartzetik hasi, eta biztanlearen ahalduntzera arte doana, pazientearekiko informazioaren pare jartzen duen ikuspegi paternalista gaindituz, pertsonak beren osasunarekin kontzientziatu eta konprometitu daitezen saiaturaz, betiere, osasun zerbitzuen definizioan, antolaketan eta hobekuntzan eragile aktibo bihurtzeko.

Osasun Sailak Osakidetzarekin batera garatutako Euskal Osasun Sistemaren Herritarren Parte-hartzea Bultzatzeko Planak ¹ definizio hori hartu du abiapuntu Euskadin osasun arloan herritarren parte-hartze mekanismo desberdinak biltzen dituen eredu proposatzeko. Eredu edo "mapa" horrek agerian jartzen du **herritarren eta sistemaren arteko harremanaren elkarren mendekotasuna eta sakontasun maila** (parte-hartze mailak). Baita **aipatutako parte-hartzearen eragin arloa ere** (makro, meso eta mikro maila).

¹ Euskal Osasun Sistema Publikoan Herritarren Parte-hartzea Bultzatzeko Plana. Gogoeta estrategikoa eta jarduerak. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, 2016.



OSASUN ARLOAN HERRITARREN PARTE-HARTZEKO MEKANISMOEN MAPA

GIZARTEA

Arau sozialak,
erregulazioa, politikak,
gizarte zibilaren
garapena eta abar.

ANTOLAKETA

Prozedurak eta praktikak,
antolaketa-kultura

PAZIENTEAK HERRITARRAK

Pazientearen rola
inguruko sinesmenak,
alfabetizazioa osasunean,
maila soziokulturala,
adina eta abar.

OSASUN ARLOAN PARTE- HARTZEA TESTUINGURUAN KOKATUZ

Osasun arloan parte hartzea **lehentasuna da Eusko Jaurlaritzaren agenda politikoan**, eta gainera, osasun-sistema aurreratuekin lotzen da; izan ere, osasunaren erabakigarrien inguruko kontrol handiagoa egiteko eta herritarren osasun maila hobetzeko beharrezko bitartekoak eskaintzen ditu.

Osasun arloan parte hartu:

- **Osasunean emaitza hobeak** lortzeko
- **Pazienteen arretaren eta segurtasunaren kalitatea hobetzen** laguntzeko
- **Osasun-arretaren eraginkortasunean eta kostuaren** kontrolean laguntzeko
- **Talde interesdun guztiek iritzi handiagoa izan dezaten** laguntzeko
- **Herritarrei osasun-arreta hobetzeko**
- **Demokrazia parte-hartzailearekin eta etika herritarrarekin lotutako** irizpideei erantzuteko
- Herritarren beharretara **egokituago dauden osasun-zerbitzuak** diseinatu eta praktikan jartzeko
- **Pertsonak sistemaren erdigunean** jartzeko

Euskal Osasun Sistema Publikoan Herritarren Parte-hartzea bultzatzeko planak Euskal Osasun Publikoko Sistemari parte-hartzearen **testuinguru estrategikoa eta testuinguru erreferentziala** definitzen ditu osasunean prozesu parte-hartzaileak bultzatzearekin konprometitzeko modu egituratuan, gardenean eta legezkoan. Horrela, ikaskuntza eta kultura-aldaketa lortzeko prozesu esperimental honi hasiera eman diogu, epe ertainera eta erdira hurrengo mugarriak osatzeko:

DIAGNOSTIKOA

EOSPan osasun arloan herritarren parte-hartzearen egoeraren inguruko diagnostikoa ezartzea

EKINTZA PLANA

2016-2020an garatu beharreko ekintza-plana egitea EOSPan osasun arloan herritarren parte-hartzea modu egituratuan sustatzeko

SENTSIBILIZAZIOA

Osasun arloan herritarren parte-hartzearen inguruan EOSPan elkarriketari eta sentsibilizazioari laguntzea

Euskal Osasun Sistema Publikoan Herritarren Parte-hartzea **bultzatzeko planak** herritarren parte-hartze handiagoa bermatzeko Euskal Osasun Sistema Publikoan maila orokorrean hartu beharreko ekintzak biltzen ditu eta bost ardatzetan egituratuta dago:

HAUEK DIRA 5 ARDATZ HORIEK:

- **1. ardatza.** Parte-hartze kultura
- **2. ardatza.** Pazientearekin eta herritarrekin komunikazio-kanalak berregituratzea
- **3. ardatza.** Osasun arloan herritarren partaidetza planak Zerbitzuko erakundeentzako
- **4. ardatza.** Osasuna komunitatean, pazientea eta herritarrak protagonista direla
- **5. ardatza.** Osasun arloan herritarren parte-hartze organoen funtzionamendua parte-hartzearen ikuspegitik, baita Planena, Programena eta populazio mailako beste tresna batzuen ere.

EUSKAL OSASUN
SISTEMA PUBLIKOKO
OSASUN ARLOAN
HERRITARREN PARTE-
HARTZE KONTZEPTUA
ARGITZEA

ERAKUNDEETATIK
HERRITARREN PARTE-
HARTZEA LANTZEKO
EREDUA PROPOSATZEA

PARTE HARTZEKO
GUTXIENEN EREDU/
TESTUINGURU/
PRINTZPIO
"ATSEGINAK"
DISEINATZEA

IRISMENA ZEHASTU
ETA EGITURATZEA

**Euskal Osasun
Sistema Publikoan
Herritarren
Parte-hartzea
Bultzatzeko Plana**

OSASUN ARLOAN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO ERAKUNDEENTZAKO GIDA

Aurkezten dizuegun gida honekin, lehen ardatza lantzea proposatu nahi da eta erantzuna emango zaio **Osakidetzan osasun arloan parte hartzeko kultura sendoagoa sortu eta sustatzeko** beharrari eta erakunde desberdinakosatzen dituzten pertsona guztien sentsibilizazioan eta prestakuntzan oinarritzen da.

Estrategia korporatiboekin bat etorriz eta bere kudeaketa-tresna diren programa-kontratuekin bat etorriz, beren erakundeetan prozesu parte-hartzailea abiarazi nahi duten profesionalentzako **erreferentzia teoriko-praktikoa** izan nahi du, Herritarren Parte-hartze Plan propioa sortuz, eta ahal den neurrian euskal gizartearen ikuspegi anitza tartean sartuz, pertsonen behar errealetara egokituago dauden osasun-zerbitzuak martxan jartzearekin eta diseinatzearekin lotuta.

OSASUN ARLOAN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO ZER KONPROMISO HAR DITZAKEGU ERAKUNDEETATIK?

Osasun arloan parte-hartzea sustatzea oso garrantzitsua dela kontuan hartuta, Osakidetza erakundeek osasun-arretan txertatzea eta lankidetzan aritzea baino harago doan begirada eraldatzailea izan behar dute, **parte-hartzea bultzatzeko erreferentziatzeko eragile** bihurtuz.

Lan honetan lagungarriak izan daitezkeen **konpromisoen dekalogo**a proposatzen da; izan ere, sistemaren parte diren pertsonen konpromisotik soilik gara daiteke gizarte gisa eskatzen ari garen aldaketa:

OSASUN ARLOAN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO 10 KONPROMISO



AKTIBATU

1 KOMUNITATEAN OSASUN PROIEKTUAK GARATZEKO ZURE ERAKUNDEAREN ETA SISTEMAKO GAINERAKO ERAGILEEN (ELKARTEAK, UDALAK ETA ABAR) ZEREGINA EZAGUTU ETA AINTZAT HARTZEA

2 KONPROMISO KOLEKTIBOTIK ABIATUTA, PARTE-HARTZE TINKOKO EREDUA SUSTATZEKO LIDERGO PARTEKATUA LANTZEA

3 ERAKUNDEAREN EGITURAN HERRITARREK PARTE-HARTZEKO EREMUAK SORTZEA GURE JARDUERAN HERRITARREN IKUSPEGIA TXERTATZEKO

JARDUN

4 SENTSIBILIZATU ETA PROFESIONALEN ETA PAZIENTEEN ARTEAN KULTURA PARTE-HARTZAILEA SORTZEA, ELKARLANEAN OINARRITUTAKO EREDUTIK

5 METODOLOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ GIZARTEA TXERTATUKO DUTEN ESKU-HARTZE PARTE-HARTZAILEAK GARATZEA

6 SISTEMATIZATZEKO HERRITARREN IKUSPEGIA TXERTATZEKO INPAKTUAREN TRESNAK ETA EBIDENTZIAK SORTZEA

PARTEKATU

7 HERRITARREN ETA PROFESIONALEN EKIMEN ETA EKARPENAK MODU ERAGINKORREAN KANALIZATZEA ETA ZURE KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO PLANETAN TXERTATZEA, HAIEN ZEREGINA AITORTUZ

8 OSASUN ZERBITZUEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA SUSTATZEA

9 NIRE ERAKUNDEKO PARTE-HARTZEAREN JARDUNBIDE EGOKIAK PARTEKATZEA ETA BULTZATZEN ARI DIREN BESTE EKIMENEKIN ELKARLANEAN ARITZEA


10

NIRE ERAKUNDEAN PARTE-HARTZE PLAN BAT DISEINATZEA ETA EZARTZEA

AKTIBATU 01

KOMUNITATEAN OSASUN PROIEKTUAK GARATZEKO ZURE ERAKUNDEAREN ETA SISTEMAKO GAINERAKO ERAGILEEN (ELKARTEAK, UDALAK ETA ABAR) ZEREGINA EZAGUTU ETA AINTZAT HARTZEA

Hasi baino lehen, lagungarria izango zaizu zure inguruan, barnean zein kanpoan, osasun arloan garatzen ari diren (edo garatu diren) ekimen parte-hartzaileak ezagutzea. Gero eta eragile gehiago ari da osasunean eragin nabarmena duten (bizitza osasungarriko ohiturak, babes-taldeak, osasun emozionala eta abar) proiektuak lantzen. Proiektu horien bidez, parte-hartzea nork egiten duen edo egin duen (sustatzaileak, laguntzaileak, parte-hartzaileak...) identifikatu ahal izango duzu ere.



- Parte-hartzea inoiz ez da hutsetik hasten. **Aurretiazko esperientziak** kontuan hartuta (indarguneak, mesfidantzak eta abar) prozesuak planifikatu eta diseinatzeak martxan jartzea erraztuko dizu. Zure erakundean ere egingo zenituzten ildo horretako hainbat jarduera. Behatu eta eragin, eta besteek zu eragin zaitzaten ere tarteak utzi. Gehiago ikasiko duzu.
- **Egin ezazu** prozesu parte-hartzaileetan inplika ditzakezun sistema barneko eta kanpoko **eragileen/pertsonen mapa**. Arreta berezia jarri **sarean lan egiten duten** eta **sistematikiko ikuspegi desberdinak eman diezazkizukeen erakunde garrantzitsuetan**.
- Aprobetxatu **sareak (formalak eta informalak)** eta bideratu zure prozesuak emaitza onenak lortzeko, baina batez ere, **inpakturik handienak lortzeko**. Identifikatu eta erabili dagoeneko erabiltzen dituzun kanpo **komunikazioko kanalak** (goragokoak), eta harreman irisgarriagoa lortzeko gara ditzakezunak (beheragokoak).

ORIENTABIDEAK:

- Bilatu elkartasunak, galdetu, kontrastatu... herritarren ikuspegia txertatu. Esate baterako, zer elkarte, erakunde edo instituzio duzu inguruan?



- Horiekin egin lan hasieratik, ez deitu amaieran edo fase isolatuetan. Emaiezu legitimitatea eta errespetatu haien ikuspegia eta iritzia, eta egin ezazu profesionalekiko konplizitatetik.
- Duzun hori erabili. Helburua ez da beti espazio edo harreman berriak sortzea; batzuetan nahikoa da dagoeneko baduzun, baina behar baino erabilera kaxkarragoa ematen ari zaren horri begiratzea, edo dagoeneko martxan dagon hori sustatzea.


TRESNEN KUTXA – EZAGUTU ETA HURBILTZEKO tresnak

- Zure inguruko ekimenen eta eragileen mapa egin, barnekoa eta kanpokoak. Lagungarria izateko, Euskal Osasun Publikoko Sisteman Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko Planaren baitan, Osakidetzan 2015ean herritarrek parte hartzeko ekimenak bilatu, identifikatu eta jasotzeko erabili den fitxa erabil dezakezu (I. eranskina).
- Herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten zerbitzuekin lotuta zure erakundeko ekimenak identifikatu ostean, eta zuen abiapuntua eta egoeraren azterketa hobeto ikusteko, osasunarekin lotutako herritarren parte-hartzeko ekimenekin zerikusia duen zuen mapa sor dezakezue (II. eranskina), Euskal Osasun Publikoko Sisteman dagoeneko badugun Maparen ereduari eta Osakidetza Erakundearen eta intereseko beste talde batzuen laguntzari esker diseinatu denari jarraituz.
- Korporazioetako (Ospitaleratzea, Larrialdiak, Lehen Mailako Arreta eta abar) asebetetze-inkestetako informazioa erabiltzea, erreklamazioak eta iradokizunak errealitatea hobeto ezagutzeko.
- Zure inguruko eragileekin (farmaziak, udalak, pazienteen elkarteak, ikastetxeak, sozio-sanitarioak eta abar) dituzun hitzarmenak berrikustea.

AKTIBATU 02

KONPROMISO KOLEKTIBOTIK ABIATUTA, PARTE HARTZE TINKOKO EREDUA SUSTATZEKO LIDERGO PARTEKATUA LANTZEA

Partekatutako konpromisoak betetzeko errazagoak eta bizkorragoak izan ohi dira. Hori dela eta, bide hau konpainian egiteko eta parte-hartzea denboran iraunkorragoa izan dadin taldeak osatzeko (sortu eta trebatu) gonbita egin nahi dizugu.



- **Diziplina anitzeko pertsonak osatzen duten taldeekin** lan egin: osasun arlokoak diren edo ez diren profesionalak, kategoria desberdinetakoak, erakundearekin bat ez datozen pertsonak edo eragileak, hainbat gauza komunean izanditzaketen eta beste ikuspegi batzuetan esperientzia izan dezaketen pertsonak, esate baterako: Kalitatea, Berrikuntza, Erabiltzaileen Arreta, Erantzukizun Sozial Korporatiboa edo Kudeaketa Aurreratuan ari direnak. Parte-hartzean esperientzia duten pertsonak ibilbiderik ez dutenekin nahastu; azken hauek ikuspegi zabala, gogoia eta interesa eman diezaiokete taldeari.
- Taldeko kide bakoitzak **erantzukizunak onartu eta balioa gehitu** beharko du. Erakundeko partaidetzaren kudeatzaile edota arduradun

gisa egingo duzun lana **lidergo partekatutik** laguntzea izango da. Aprobetxatu eta eman garrantzia taldearen ezagutzei. Identifikatu hobekuntza arloak (pertsonalak eta kolektiboak). Bilatu eta eskaini garatzeko tresnak (parte-hartze **metodologiak**, kudeaketa aurreratua, entzute aktiboko teknikak eta abar.).

- Prozesu parte-hartzaileetan pazienteen edo familiartekoen elkarrekin txertatzeko erronka handienetako bat (identifikatzeaz harago) **adierazgarritasuna bermatzea da**. Protesta-logika gairatuz rol inklusibotik parte har dezaten saiatu. Gogoan izan prozesu bakoitzean eragileak desberdinak izan daitezkeela helburuaren, gaiaren, zure erakundeko errealitatearen eta abarren arabera.



ORIENTABIDEAK:

- Bilatu inizatiba duten, eta inguruan eta komunitatean erakartzeko gaitasuna duten pertsonak (pazienteak, elkarreentako kideak, komunitateetako liderrak eta abar), eta sortu aliantzak eta konplizitateak.
- Partekatu ikuspegia osasun arloan parte hartzearen inguruan jakin-minak dituzten profesionalekin. Baloratu berezitasunak.
- Arakatu, bultzatu, koordinatu eta kohesionatu. Baina ez ahaztu sentitu ere egin behar duzula: jarri arreta emozioetan eta enpatiatik abiatuta konfiantzazko harremana eraiki. Beti da garrantzitsua, baina osasun arloan parte-hartzea lantzean, are garrantzitsuagoa da oraindik.


TRESNEN KUTXA – TALDEAK OSATZEKO ETA ZUZENTZEKO tresnak

- Pazienteen/herritarren ordezkagarritasuna berrikustea lantalde desberdinetan, batzordeetan, prozesu asistentzialetan eta asistentzialak ez direnetan eta abar, beharrezkoa denean pixkanaka txertatzen joateko. Egin itzazu galderak: Gai honetan, herritarren ikuspegia kontuan hartu al da faseren batean? Egokia izango litzateke ikuspegi hori kontuan izatea?
- Eguneratu zure harreman-sarea datu-base bat eginez (pertsonak eta harremanetako datuak eta abar), lehen egindako eragileen mapan oinarrituz.
- Atera zure erakundetik. Jarri harremanetan, hartu jarrera eta izan bultzatzaile. Elkarreentan, udaletan eta abarretan lan egiten duten pertsonen aurpegia jarri, eman zure burua ezagutzera, eman zure erakundea ezagutzera eta ezagutu zure inguruko eragileak.

AKTIBATU 03

ERAKUNDEAREN EGITURAN HERRITARREK PARTE HARTZEKO EREMUAK SORTZEA GURE JARDUERAN HERRITARREN IKUSPEGIA TXERTATZEKO

Parte-hartzea ez da bat-batean sortzen da. Bultzatzeko beharrezko baldintzak sortu behar dira. Horrek esan nahi du parte-hartzea "egiteko" espazioak eta uneak bilatu behar direla. Parte hartzeko eremuak sortu eta bultzatzea izango da helburuak lerrokatzea eta lor daitezkeen horiek proposatzea ahalbidetuko dizun partekatutako lanaren dinamika sortzeko oinarria.



- Prozesuak **testuinguruan kokatu**. Garrantzitsua da gizarteak, gai bakoitzean interesa duen talde bakoitzak, uler dezan bere parte-hartzeak zentzua duela eta osasun-arretako kultura-aldaketa baten parte dela.
- Modu **gardenean** jardun. Osasunari buruzko, parte hartzeko testuinguruari buruzko edo bilatutako emaitzei buruzko informaziorik gabe ezinezkoa da kalitatezko parte-hartzea izatea.
- Kontuan izan zer **baliabide** dituzun. Prozesu bakoitza mundu bat da, baita erakunde bakoitzeko errealitatea ere. Parte-hartzeak, gainera, denbora eskatzen du. Baina parte-hartzeari eskaintzen diozun **denbora** inbertsio ona izango da herritarren osasuna hobetzeko.
- Erabili parte-hartzea osasun-arretaren inguruan eta pazienteek horrekin zerikusia duten erabakiak hartzeko garaian duten parte-hartzearen inguruan dauden ikuspegi paternalistak gainditzeko.



ORIENTABIDEAK:


- Batzuetan zaila izaten da sistemaren inertiak gainditzea, bai erosotasun-eremutik ateratzea, bai arriskuak onartzea. Baina parte-hartzeak horretan lagunduko dizu, pazienteen, familiartekoen, elkarteen eta abarren eskaera eta behar errealei aurre egitean.
- Hastea zaila izan daiteke. Hori dela eta, beti buruan izan "gutxiago gehiago da". Lehenetsi eta egin lan beharraren, borondateren, aukeraren, ahaleginen eta abarren arabera.
- Prozesu parte-hartzaile egoki batek emaitza onak emateaz gain, etorkizunean landu nahiko dituzun beste ekimen batzuen aldeko uholdea sortuko du.

TRESNEN KUTXA - PARTE HARTZEKO EREMUAK SORTZEKO tresnak

- Kontseiluen bidez (Soziala, soziosanitarioa...), parte-hartzearekin lotutako gai estrategikoenak eta egonkorrenak lantzea.
- Beti ez da beharrezkoa izaten egitura edo unitate berriak sortzea.
- Pentsatu zure erakundeko zein pertsona elkar ditzakezun parte-hartzeko bultzadan.
- "Herritartasun" jardunaldiak antolatzea, ikerketa- edo berrikuntza-jardunaldiak antolatzen diren moduan.
- Teknologia berriak aprobetxatzea erronkak eta hobekuntza-proposamenak atzemateko.

SENTSIBILIZATU ETA PROFESIONALEN ETA PAZIENTEEN ARTEAN KULTURA PARTE-HARTZAILEA SORTZEA, ELKARLANEAN OINARRITUTAKO EREDUTIK


Erakundean kultura parte-hartzailea sortzeak, gizarteak diseinuan parte hartzeko duen eskubidea aitortzea eta bizitza osasungarria eta ingurune osasungarria sustatzea helburu duten komunitateko jarduerak martxan jartzea eta ebaluatzea dakar berekin.



- Kultura parte-hartzailea sortzea ez da erraza, **jarrerarekin** eta antolaketarekin **lotutako trabak** daude, eta gaingitu egin beharko dituzu. Hori dela eta, prozesuak sustatzeaz gain, ezinbestekoa da parte-hartzearen balioaren transmisioan rol aktiboa onartzea **gizarteak bere osasunarekin zerbitzu hobe**a eta konpromiso hobe izan dezan.
- Beharrezkoa da parte-hartzea pazienteari emandako informazioarekin parekatzen duen ikuspegia gaingitzea. Erakundeek, profesionalak eta pazienteek osasunaren kudeaketaren erantzukizuna izan behar dute.
- Osasun arloan **parte hartzeko kultura sortzeak parte hartzeko beste prozesu batzuk zabaltzeko** aukera emango dizu. Beste eragileei inplikatzeko beharraz konbentzitzeko aukera da. **Konbentzi zaitez eta konbentzitu.**

ORIENTABIDEAK:

- Ez baldin badakizu nondik hasi, galdetu eta kontrastatu zuk baino esperientzia gehiago duten pertsonekin. Jarraibideak emango dizkizute, eta nola eta nondik hasi jakiteko gidatuko zaituzte.




- Parte-hartzeari buruz zenbat dakizun edo prozesuen buru izaten zenbat esperientzia duzun aintzat hartzeaz gain, motibazioa eta gogoa garrantzitsuak dira beste pertsonen ilusioa pizteko eta konprometitzeko.
- Aprobetxatu aukera aldaketa honen protagonista izateko. Ez kontatu prozesuak hirugarren pertsonen: zure edukiak eraiki eta eman iritzia. Parte-hartzearen balioari buruzko iritzia eman eta praktikatu. Zure inguruko pertsona askori zure esperientzia eta ikuspegia jakitea interesatuko zaio.
- Garrantzitsuen konpromisoa hartu eta horri eustea da, egindako bidea edozein izanda ere. Eta jabetzea osasunarekin lotutako parte-hartzea benetan sustatzeko, egiteaz gain, konbentzitzea ere beharrezkoa izango dela.

TRESNEN KUTXA – SENTSIBILIZATZEKO ETA KULTURA SORTZEKO tresnak

- Berrikusi parte-hartzearen balioa igortzen eta zure erakundean parte-hartzea bistaritzen lagunduko dizun komunikazio-bitartekoren batekin hitzarmen bat duzun.
- Parte-hartzearen bultzadan konpromiso profesionala aitortzeko formulak bilatu (esate baterako, ESlaren buletinean jasotzea, denbora, prestakuntza...).
- Jardunaldi ireki bat (edo bat baino gehiago) egin eta modu aktiboan parte hartu beste eragileek antolatzen dituzten sentsibilizazio-ekimenetan edo foroetan.

METODOLOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ GIZARTEA TXERTATUKO DUTEN ESKU HARTZE PARTE HARTZAILEAK GARATZEA

Erakundean parte-hartzea bultzatzeak kudeaketa modu esperimentalagoan bizitzera eramango zaitu. Egoerak eta elkarrizketak jarriko mahai gaineratzean, horientzako erantzuna ez duzu beti izango. Esperimentazioak ideia berriak gauzatzeko egiteko-modu berriak egiaztatzea eskatzen du, eta ondoren ebaluatzea, funtzionatzen dutenak sustatzeko.



- Parte-hartzearekin lotutako **prozesu pilotuek** arazoak non dauden ezagutzeko aukera emango dizute zuzenetik. Esperientziarekin, **malgutasuna eta egokigarritasuna** hobetuko dituzu.
- Ez duzu beti esperotako **inpaktua lortuko**, baina ondorio baliotsuak lortuko dituzu abian jarriko dituzuen edo erakundetik elkarlanean arituko zareten hurrengo prozesuetan txertatzeko.
- Kalitatea edo zerbitzuak eskaintzeko eredua hobetzeko prozesu parte-hartzaileetan **anbizioarekin jardutea** komeni da. Herritarrek gai nuklearretan parte hartzea eskatzen dute, baita beren osasuna eta bere komunitatekoa sustatzen gero eta protagonismo handiagoa hartzea ere.
- Parte-hartzeak **aurreikuspenak** sortzen ditu; hori dela eta, **prozesuen bideragarritasuna** eta eragiteko tarteaz zertan behar dituzu. Hobe da aurreikuspen txarrak sortzen dituen edo erantzuna eman ezin diozun prozesu bat ez hastera.



PROZESU MAPA – KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDAGAIK

BARNE BALIABIDEAK

PROZESUEN
SISTEMATIZAZIOA

ERAGILE ALIATUAK /
BIDERATZAILEAK

INFORMAZIOA ETA
KOMUNIKAZIOA

LANEKO DINAMIKA
PARTEKATUA

PRESTAKUNTZA

ORIENTABIDEAK:


- Ez izan huts egiteko beldurrik. Osasun-praktikan oinarritzkoa da arriskuak minimizatzea, baina parte-hartzean, edukietan eta tresnetan esperimentatzeko aukerari tarte utzi diezaiokezu.
- Erabili prozesua ezartzeko lagungarriak izan ditzakezun eskuliburuak eta metodologia-gidak.
- Profesionala-pazientea harremanean ohikoak ez diren laneko dinamikak sustatu; izan ere, ikuspegi anitzenak biltzen lagunduko dizu eta prozesuko emaitzak hobetuko dira.

TRESNEN KUTXA – BERRITZEKO tresnak

- Talde fokalak aktibatu, enpatia-mapak, pertsona boluntarioak dituzten pazienteen tailerrak, paziente aktiboek buruzko dagoeneko badauden sareak.
- Herritarren ikuspegia hasieratik prozesuen diseinuan txerta dadin sistematizatzea.
- Irekiera eta berrikuntza fokuan eta metodoan.
- Esate baterako, erakundeko bottom-up proiektuak erabili parte-hartzea faseren batean txertatzeko.

SISTEMATIZATZEKO HERRITARREN IKUSPEGIA TXERTATZEKO INPAKTUAREN TRESNAK ETA EBIDENTZIAK SORTZEA

Zure erakundean parte-hartzeko bidea martxan jarri ostean, prozesu parte-hartzaileen sistematizazioak ondorio orokorragoak ateratzen eta hobekuntzak eta sinergiak identifikatzen lagunduko ditu. "Parte-hartze eskalako ekonomia" txikiak bilatu nahi dira.



- Mekanismoa sinpleak diseinatu hasierako egoera batetik bestera nola pasatu zaren hobeto ulertzeko eta **prozesuaren arrazoiak eta galderak ulertzeko**. **Gutxieneko** batzuk ezarri egindako jarduerak, eragile parte-hartzaileak eta horien rola, erabilitako metodoak eta baliabideak **aztertze** (bitarteko mota desberdinak, doako elkarlanak eta abar).
- Sistematizatzea balioari "forma" emateko modua da, hautemangarria eta irisgarria egiteko modua.
- Datuak eta informazioa ordenatzea** lagungarri gerta dakizuke gertatutako aldaketak, aldaketa horien eragileak izan ziren faktoreak eta esku-hartzearen emaitzak azaltzeko, eta bertatik **hobekuntza arloak eta beste prozesu batzuetarako aprobeitza daitezkeen elementuak** atera daitezke
- Parte-hartzearen itzulera **neurtzea konplexuagoa da**, baina eraginkortasun ekonomikotik edo kostuaren kontroletik harago, tartean dauden kolektiboen artean, profesionalen eta pazienteen (haiengan eta haien arteko) aldaketei erantzungo dieten **elementu kualitatiboagoak** txertatzen ditu.

ORIENTABIDEAK:

- Prozesua arrakastatsua izango den edo ez zalantzak baldin badituzu ere, eta gogaikarria izan badaiteke ere, sistematizatu. Prozesu guztietatik ikas daiteke (berrir egin behar ez duzun hori izanda ere), kritika behar bezala kudeatzen duzun eta kontrasteari beldurrik ez diozun bitartean.

HASIERAKO EGOERA

- HASIERAKO EGOERA Abiapuntuko egoera deskribatu
- TESTUINGURUKO ELEMENTUAK Arrazoiak definitu Ekintza mugatzen duten aldagaiak

ESKU HARTZE PROZESUA

- ESKU HARTZEA Zer (jarduerak) Noiz (denborak) Nor (eragileak) Nola (metodoa) Zerekin (baliabideak)
- TESTUINGURUKO ELEMENTUAK Ekintzarako mesedegarriak diren aldagaiak Ekintza mugatzen duten aldagaiak

AZKEN EGOERA

- AZKEN EGOERA Aldaketaren deskribapena Esku-hartzearen onurak Eragileentzako onurak
- TESTUINGURUKO ELEMENTUAK Hobetzeko aldagai garrantzitsuak Aldagai garrantzitsuak

IKASITAKO IKASGAIK

- Egiteko moduari buruzko zalantzak baldin badituzu, eskatu laguntza prozesuen kudeaketari lotuago dauden zure erakundeko pertsoneri. Tresna mota honetan orientatzen eta trebatzen jakingo dute. Eta litekeena da zuk parte-hartzeari buruz emandako ezagutza eta esperientzia zuri esker soilik ezagutzea, eta ez beste modu batera.
- Helburua ez da monitorizazio-tresna bat eta ebaluazio sofistikatu sortzea, baizik eta prozesuaren hasieratik prozesuaren garapena baldintza dezakeen informazioaren berri izatea.
- Aztertu beste eragileei balio dien zerbait badagoen (elkarteak, hezkuntza-eragileak, udal-erakundeak eta abar) eta zalantzarik gabe partekatu. Zehaztu zer partekatuko duzun, zer euskarriekin, eta egokitu hizkuntza komunikazioa eraginkorra izan dadin.



TRESNEN KUTXA – SISTEMATIZATZEKO tresnak

- Zure erakundean ekintza parte-hartzaileetatik ikasitakoei eta lorpenei buruzko (ez kuantitatiboak bakarrik, baita kualitatiboak ere) urteko informazioa bildu eta informatu, baita partekatu ere.
- Ikasitakoak partekatzen dituzun une horiek aprobetxatu sustatu dituzun prozesuei buruzko kanpoko ikuspegi kritikoa jasotzeko. Etorkizuneko prozesuetan aplikatzeko hobekuntza-elementuak identifikatzeko balioko dizu.
- Prozesu bakoitzeko helburu garrantzitsuak eta egoera horiek lantzeko hartu dituzun erabakiak zerrendatu

PARTEKATU 07

HERRITARREN ETA
PROFESIONALEN EKIMEN
ETA EKARPENAK MODU
ERAGINKORREAN
KANALIZATZEA ETA
ZURE KUDEAKETA ETA
KOMUNIKAZIO PLANETAN
TXERTATZEA, HAIEN
ZEREGINA AITORTUZ

Osasun arloan parte-hartzea sustatzeak, prozesuetan bildutako ekarpenei eta edukiei balioa ematea, horrek kudeaketan duen inpaktua eta eragina aitortzea, eta nola ez, horietan parte hartzen duten pertsonen lana eta konpromisoa eskertu eta bistaratzea esan nahi du.



- Saiatu prozesuek benetako **eragite-gaitasuna** izan dezaten zure erakundean eta eskaintzen dituzuen zerbitzuetan edo zuen lan egiteko moduan. Zure erakundean garatzen dituzuen planetan eta kanpainetan prozesu parte-hartzaileen emaitzak txertatu.
- Erabili zure erakundeko, Osakidetzako, Osasun Saileko eta Eusko Jaurlaritzako, edo elkarlanean aritzen zaren beste eragileen **sare sozialak edo komunikazio-plataformak** jarduera zabaltzeko eta bistaratzeko tresna gisa.
- Parte-hartzaile bakoitza, paziente, elkartea, herritar eta abar, balioan jarri. **Konfiantza handiagoa, zilegitasuna eta hurbiltasuna** sortu, baita **inplikazio eta asebetetze gehiago ere**.
- Prozesuetan parte-hartzaile bakoitzaren balioaren pertzepzioa hobetzeko, **maila arrazionalean** (ebidentziak erakutsi eta konbentzitu), **maila emozionalean** (lotura sortu) eta **maila kontzientean** (ohitura sortu) jardun.



ORIENTABIDEAK:

- Parte-hartzea denbora eta borondate kontua da. Ez etsi epe laburrean emaitzak lortzen ez badituzu. Aprobetxatu ahalik eta gehien ekarpenak eta txerta itzazu zure eguneroko kudeaketan.
- Zure erakundean martxan jarritako prozesuek eskaintzen duten balioaren ikuspegi zabala izan, baina baita zure erakundearekin zerikusirik ez duten beste prozesu batzuen ere.
- Zintzotasunez eta egiazkotasunez jardun, bai kanpo mailan, bai barne mailan. Konpromisoa eta parte-hartzea tinkotasunez eta jarraikortasunez eskertu.


TRESNEN KUTXA – AITORTZEKO tresnak

- Identifikatu zein diren zure eskura dauden komunikazio-baliabideak eta dinamikak borondatezko lanak zabaltzeko eta aitortzeko.
- Erakundean, informazioaren sarrerako kanalak antolatu eta erabakiak hartzeko zuzendu.
- Gero eta esperientzia handiagoa hartzen ari zaren neurrian, beste prozesu parte-hartzaileetan balioa eman dezaketen izenen eta erreferentzien zerrenda osa dezakezu.

PARTEKATU 08

OSASUN ZERBITZUEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA SUSTATZEA

Kontuak ematea prozesuen moduak eta emaitzak gizarteari zabaltzeko aukera da, baita gardentasunez jarduteko abagunea ere, erakundetik bultzatu dituzun prozesuen balioa nabarmen igotzeko.



- **Kontuak emateko** ariketa egiteak prozesuaren diseinuari, ezarpenari eta ebaluazioari buruzko 360°-ko ikuspegia ematea esan nahi du. Garrantzitsua da prozesua zure erakundeko helburuekin eta Osakidetzakoekin (oro har) nola lerrokatzen den zehaztea. Baita ere garrantzitsua da erakustea prozesuaren barne-gobernantza eta martxan jartzetik eratorri diren proiektuak nola planteatu dituzun.
- Faktore horiek erakusteko eta transmititzeko duzun graduak eta moduak emango dio **zilegitasuna eta sinesgarritasun** handiagoa prozesuari. **Erantzuna izan dezaketen ereduak** bilatzeko ere balioko dizu eta **zure erakundeko eta erakundea osatzen duten pertsonen gaitasun teknikoak eta antolaketa-gaitasunak** hobetzeko **balioko du**.

ORIENTABIDEAK:

- Gardena izateko, informatu eta komunikatu egin behar da. Egin gogoeta prozesuaren benetako helburuen inguruan eta ez utzi informazioak (edo informazio ezak) garapena oztopa dezan.
- Informazioa boterea da, eta hori dela eta, "komeni" ez diren gaiak "ezkutatze" gogoak bide luzean lagunduko zaitu. Ez ezazu egin. Gardentasun-gabeziak konfiantza-harremana zapuzten du eta etorkizuneko prozesuei kalte egingo die.



INPAKTUA
 TESTUINGURUA
 BALIABIDEAK
 PROIEKTUAK JARDUERA
 MUGARRIAK
 LERROKATZEA
 EMAITZAK
 PERTSONA ONURADUNAK
 BETETZEA
 IRISMENA
 IKASITAKOAK
 ALIANTZAK
 PROZESUA

- Baina zer maiztasunekin informatu behar da? Zer informazio da garrantzitsua? Nor informatu behar dut? Arau orokor gisa, informatu aldizka, erraztasunez eta modu konstantean. Sistematik kanpo dauden eragileek batzuetan ez dute testuingururik. Hori dela eta, arrazoiak eta helburuak, prozesuaren mugarrak eta horien helburuak azaldu behar dituzu.
- Bi komunikazio maila izan kontuan: barnekoa (prozesuan parte hartzen dutenak) eta kanpoko (herritarrak, oro har). Eta ez ahaztu komunikazio-fluxua ez dela prozesuarekin amaitzen. Prozesua amaitu ostean, pertsona parte-hartzaileei jakinarazi beren parte-hartzeak izan duen inpaktua.

TRESNEN KUTXA – KONTUAK EMATEKO tresnak


- Zabaltzeko eta komunikatzeko material irisgarria eta ulergarria sortzea (hizkuntza erraza, on line eskuragarri...).
- Prozesuetan parte hartu duten pertsonekin / eragileekin sortutako loturak ez hautsi. Zure jardueren berri izan dezaten, informazio-pilulak erabiltzea.
- Prozesua gardentasunarekin informatzeko duzun plataforma bakoitza (aldizkariak, intranet, webguneak, sare sozialak eta abar) erabili.

PARTEKATU 09

NIRE ERAKUNDEKO PARTE HARTZEAREN JARDUNBIDE EGOKIAK PARTEKATZEA ETA SUSTATZEN ARI DIREN BESTE EKIMENEKIN ELKARLANEAN ARITZEA



Osasun arloan parte-hartzea bultzatzeko dekalogo honen amaierara iritsi gara ia-ia eta ez dugu ahaztu behar beste eragileekin izandako elkarlan eraginkor batek prozesuari eskaintzen dionak duen garrantzia. Hori dela eta, batzuetan kudeatzeko konplexuagoa izan daitekeen arren, ezin duzu bakarrik egin, gainera, ez da gomendagarria. Nahastu zaitez eta utz zaitez nahastu.



- Prozesu parte-hartzaileetan lanean ari diren Osakidetza barneko osasun arloko beste erakunde batzuekin **loturak sortzen** hasi, eta partekatu proposamenak hobetzeko eta zure erakundeak zabaltzen duen **aldaketa-prozesuaren** parte zarela sentitzeko eta proposamenak hobetzeko balio dakizukeen informazioa, dokumentazioa, tresnak edo aldaketak partekatu.
- Formaliza itzazu elkarlan horiek harreman-marko bat osatuko duten **akordioen bidez** eta prozesuei laguntzeko garaian **konpromiso** handiago baten bidez.
- Barne-aliantza horiek sortu ostean, jarraitu bilatzen, konektatzen eta beste erakunde eta elkarte batzuetara batzen, baita **ikuspegi berriak**

eta egiteko modu berriak eskain dakizkizukeen pertsonekin bat egiten ere. Beste eragile batzuekin **nahastuz eta** euren **babesa lortuz**, parte-hartzea urrunago irits dadin eta sistemako egituretan eragin handiagoa izan dezan lor dezakezu.

- Denborarekin, barne- eta kanpo-laguntzaileen **sare sendoa sortzea** da helburua. Horrek zuk bultzatutako prozesuak kontrastatuta eta adostuta daudela bermatzeaz gain, prozesuaren **bistaratzeari** eta **kontuak ematean** ere lagunduko dizu.



ORIENTABIDEAK:

- Sinetsarazi zure buruari eta barneratu sarean lan egitea, zaila izan arren, ez dela lana bikoiztea, aukerak batzea da. Erabili eta bistaratu zure lana sarean, elkarlan honen balioa nabarmenduz ideiak eta proposamenak partekatu eta kontrastatzeko euskarri gisa.
- Zabaldtu ondo begiak eta zorroztu belarriak. Galdetu eta jakin-mina mantendu. Ezagut itzazu zure inguruan martxan dauden beste prozesuak eta saiatu identifikatzen nork eskain diezaiokeen balioa zure proiektuari, zure taldeko edo erakundeko kide izan zein ez, eta gonbidatu parte har dezan.
- Ez izan kontatzen duena eta ekarpena egiten duena zu izatearen beldurrik. Beste prozesu batzuetan murgiltzea eta zure ezagutza eta esperientzia partekatzea aberasgarria izango zaizu maila profesionalean eta pertsonalean.
- Ez galdu hitz egiteko aukera; izan ere, horrekin bakarrik, parte-hartze egoki baten oinarriak finkatzen ari zara. Prozesu parte-hartzaile baten bidez zer diseinatu edo erabaki beharko litzatekeen pentsatu eta horri buruzko zure iritzia eta ikuspegia eman, baita bertan ahotsa eta presentzia nork izan beharko lukeen edo luketen ere.

TRESNEN KUTXA – KONEKTATZEKO tresnak

- Aprobetxatu Integra Sarea eta Osakidetzako zeharkako beste ekimen batzuk esperientziak partekatzeko eta ezagutzeko.
- Parte-hartzearekin lotutako zure ekimenak edo esperientziak izateko aukera eskaintzen zaizunean, egin ezazu. Atera denbora gonbidatzen zaituzten foroetan ikaskuntzak partekatzeko.
- Egin fitxa erraz bat zure ekimena jardunbide egoki moduan dokumentatzeko.
- Ez egin uko jardunbide egokiak partekatuko dituzun estatuko eta nazioarteko sareekin konektatzeko aukerari.

DISEINATU ZURE PLANA 10

NIRE ERAKUNDEAN PARTE HARTZEKO PLAN BAT DISEINATZEA ETA EZARTZEA

Orain iritsi gara dekalogo honen amaierara. Edo hasierara. Konpromiso hauetan zehar, zugandik hasita, erakundetik pasatuz eta ondoren gizartetik, zure erakundean parte-hartzea sustatu ahal izateko bidea planteatu zaizu. Baina esperientziatik abiatuta, plan bat diseinatzeko unea iritsi da. Horrek zure erakundean parte-hartze iraunkorra egin ahal izateko aukera emango dizu.



- **Espazioak** sortu eta **taldeak** egin dituzu, eta jarrera iragazkorretik esperientzietara eta protagonista izan diren eragileengana hurbildu zara. Metodoetan **esperimentatu eta berritu** duzu eta hasieran sortzen den kaosa kudeatu duzu neurri batean. **Prozesuak ere pilotatu** dituzu modu zabalean, **ikuspegi partekatutik** eta **eskaera errealetan** txertatuta. Zure erakundean **kultura parte-hartzailea sortzeko** lan egin duzu, **sistematizazioaren bidez** lortu dituzun emaitzei balioa emanaz, eta gainera, **beste eragileetan eta sareetan** indarra hartzeko gai izan zara. **Ikasi** egin duzu eta **indarrak eta ezagutzak** batu dituzu.
- **Erabili ikasitako guztia zure erakundeko parte-hartze planak oinarri** izango duen planteamendu errealista egiteko. Izan ere, plana eduki arren, beti ez duzu jakingo **zerbitzu hobeak** eta osasun arloan herritarren **kontzientzia handiagoa eta ahalduntzea** sortuko duten prozesu parte-hartzaileak diseinatzen eta ezartzen. Baina jakingo duzu parte-hartzearen zikloa nondik eta nola hasi. Izan ere, bide hau egin baduzu, **parte-hartzea zureganatu duzu.**

ZU

Ba al da gehitu dezakezunik?

Beste ekarpenik egin dezakezu?

Inplikatu nahi edo ahal duzu?

Noraino inplikatzeko prest zaude?

Zerk kezkatzen edo geratzen zaitu?

ZURE INGURUA

Zer gauza beharko zenituzke prozesu parte-hartzailea martxan jartzeko?

Zein pertsonak/eragilek eman diezazkizuke horiek?

Beste zein beharko zenuke hasi ahal izateko?

Nola erlazionatuko zara eragile horiekin?

ORIENTABIDEAK:

- Gurpilari jarraipena emateko gonbitea egiten dizugu, zure **konpromiso mailan aurrera egiteko, konprometitzeko, gehiago eta hobeto egiten jarraitzeko**. Baina honaino iritsita, garrantzitsua da **ospatzea**. Ospatu ikasi duzuna eta lortu dituzun **gaitasun berriak**. Ospatu

komunitatea eraikitzeko gai izan zarelako, gauzak modu desberdinean egitea lortu duzulako, osasuna eraikitzeko parte izan nahi duten pertsonen balioa eman. Eta ez galdu inoiz zure buruari zer gehiago egin dezakezun galdetzeko aukera.

TRESNEN KUTXA – PLANerako tresnak

- Aurretik garatutako tresnak eta ekintzak erabili, eta Planean balioa eman.
- Aztertu zure erakundeko herritarren parte-hartzeko Planaren edo Estrategiaren txertaketa, bai zure erakundeko urteko kudeaketa Planean zehaztutako adierazleetan, bai Programa-kontratuko edukietan.
- Baliabide korporatiboak ezagutu eta aprobetxatzea parte-hartzearen bultzada diseinatzeko eta horretan aurrera egiteko, eta ondoren Planean txertatzeko. Ahalegin bikoitzik ez egin.

PARTE-HARTZEA DAGOENeko ZURE LANeko TRESNA DA





ZEURE TRESNAK GEHITU


AKTIBATU

JARDUN

PARTEKATU



ZURE PLANA DISEINATU



ERANSKINA: Herritarren Parte-hartzeko ekimenen fitxa

Zerbitzuen antolaketa:

**Ekimenaren arduraduna den
Zerbitzua/Unitatea:**

**Bertan esku hartzen duten ESlen beste
Zerbitzuak/Unitateak:**

**Ekimeneko kontaktua: Izena,
telefonoa, helbide elektronikoa:**

Ekimenaren izena:

Ekimenaren deskribapena:

Aurretiazko tokiko testuingurua / beharraren justifikazioa:

Helburua:

Zer publikori dagoen zuzenduta:

Esku hartzen duten eragileak:

Ekimenaren barne-antolaketa:

Emaitzak eta lorpenak:


Ekimenaren balorazioa:

Zerk funtzionatzen du?

Zerk ez du funtzionatzen?

Hurrengo urratsak:

ERANSKINA: Zure erakundean parte-hartzeko mekanismoen Mapa sortzeko fitxa



Zure erakundearen ekimenak mapan kokatzea, zuen irizpidearen arabera

OSASUN SAILA

PROIEKTUA: OSASUN ARLOAN PARTE HARTZEA. Euskadirako Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuriaren zabalkundea

ARGITALPENA: OSASUN ARLOAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO OSAKIDETZAKO ERAKUNDEENTZAKO GIDA (2016ko maiatza).

LANTALDEA:

Osasun Saila. Osakidetza. Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioa (BIOEF)

- o **Guillermo Viñegra.** Osasun sailburuordea, Osasun Saila
- o **Isabel Octavio.** Komunikazio eta Prentsa arduraduna, Osasun Saila
- o **Jose María Armentia.** Giza Baliabideen zuzendaria, Osakidetza
- o **Marisa Arteagoitia.** Antolaketa- eta kudeaketa-berrikuntzako zuzendaria, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioa (BIOEF)
- o **Nuria Pascual.** Antolaketa- eta kudeaketa-berrikuntza. Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioa (BIOEF)
- o **Koldo Piñera.** Antolaketa- eta kudeaketa-berrikuntza. Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioa (BIOEF)

Administrazio Publiko eta Justizia Saila. Herritarrak hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (DACIMA)

- o **Javier Bikandi.** Zuzendaria
- o **Koldobike Uriarte.** Proiektuen arduraduna

Innobasque- Berrikuntzaren Euskal Agentzia

- o **Gotzon Bernaola.** Gizarte Berrikuntzako zuzendaria
- o **Goizalde Atxutegi.** Gizarte Berrikuntzako Proiektuen arduraduna
- o **Ixone Soroa.** Gizarte Berrikuntzako Proiektuen arduraduna